

AUTOEBALUAKETARAKO AZTERKETA

1. Ahotsaren ezaugarrien artean, zeinek transmititzen ditu emozioak modurik onenean?

- A) Intentsitateak
- B) Artikulazioak
- C) Tonuak
- D) Tinbreak

2. Artikulazioari dagokionez, /d/ fonema...

- A) horzkaria da
- B) albokaria da
- C) txistulari afrikatua da
- D) herskari edo oklusiboa da

3. Zer da tonema bat?

- A) Esanahirik gabeko hizketa-soinuaren gutxieneko unitatea
- B) Esaldi barnean zentzua eta melodia ematen duten talde fonikoen bukaera
- C) Esanahi lexikoa duen hizkuntzaren unitaterik txikiena
- D) Ez da existitzen. Fonema esaten zaio

4. Zer alde dago "baba" hitzaren lehen eta hirugarren fonemen artean?

- A) Lehenengoa oklusiboa da eta hirugarrena frikaria
- B) Lehenengoa oklusiboa da eta hirugarrena dardarkaria
- C) Lehenengoa oklusiboa da eta hirugarrena albokaria
- D) Ez dago alderik, berdinak dira

5. Aukeratu zeintzuk diren hiru organo artikulatzaile aktibo

- A) Hortzak, ahosabaia eta albeoloak

- B) Hortzak, ezpainak eta ahosabai biguna
- C) Mihia, ezpainak eta ahosabai biguna
- D) Mihia, ezpainak eta albeoloak

6. Hautatu ondorengo kontsonanteetatik sabaikari sudurkaria dena

- A) /m/
- B) /ñ/
- C) /n/
- D) /l/

7. Zein da antikadentzia adierazteko erabiltzen den zeinua?

- A) ←
- B) ↑
- C) ↓
- D) →

8. Hitzik gabeko komunikazioaren diziplinen artean, zeinekin lotzen dituzu onomatopeiak?

- A) komunikazio kinesikoa
- B) komunikazio prostemikoa
- C) komunikazio paralinguistikoa
- D) komunikazio kronemikoa

9. "Diafragma da sistema durundatzailearen oinarrizko muskulua"

- A) Egia
- B) Gezurra

10. Ondorengo abangoardia hauetatik, zein lotzen duzu Kurt Swittersen poesia fonetikoarekin?

- A) Dadaismoa
- B) Surrealismoa
- C) Futurismoa
- D) Kubismoa

11. "Berria eman zidatenean () ez nuen jakin zer esan". Zer tonema mota sartuko zenuke hutsunean?

- A) Antikadentzia
- B) Similikadentzia
- C) Suspensioa
- D) Kadentzia

12. Fonetika fisikoak fonazioaren eta entzumenaren mekanismoak aztertzen ditu

- A) Egia
- B) Gezurra

13. /i/ fonema bokalikoa...

- A) aurrealdeko fonema itxi bat da.
- B) atzealdeko fonema altu bat.
- C) aurrealdeko fonema baxu bat.
- D) aurrealdeko fonema erdi itxi bat.

14. Fonema herskarietan edo oklusiboetan...

- A) airea erabat eta une batez atxikitzen da.
- B) airea poliki-poliki ateratzen da artikulazio-organoak higatuz.
- C) aireak mingainaren punta dardararazten du bertatik igarotzean.
- D) airearen zati bat sudur-barrunbetik ateratzen da.

15. 'Maddi' izenean, zein fonema mota da 'dd' soinua?

- A) Horzkaria
- B) Belarra
- C) Ezpainbikaria
- D) Sabaikaria

16. Zerekin lotzen duzu 'ursonate' kontzeptua?

- A) Fonetikarekin
- B) Ahotsaren ekoizpenarekin
- C) Telebistako platoko elementu tekniko batekin
- D) Irrati-estudio batean topatu dezakegun softwarearekin

17. Adieraz ezazu ahoskeran egiten den ezabaketa akats baten adibidea

- A) Kokreta
- B) Unibertsidade
- C) Adibide horietako bakar bat ere ez da zuzena
- D) Kontsonantea

18. "M", "n" eta "ñ" kontsonanteak...

- A) sudurkariak dira.
- B) Frikariak dira.
- C) Albokariak dira.
- D) Dardarkariak dira.

19. Zelan izendatzen dira tolesdura bestikularrak beste era batera?

- A) Ahots-korda faltsuak
- B) Ahots-tolesdurak

20. Zein teoriarekin lotzen duzu Van den Berg?

- A) Fonazio mioelastiko aerodinamikoaren teoriarekin
- B) Arnasketa diafragmatikoaren teoriarekin
- C) Fonazioaren jatorrizko teoriarekin
- D) Arnasketaren teoria mioelastikoarekin